



Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika - EDYVI

Betetzeko jarraibideak





AURKIBIDEA

I.- AURKEZPENA	3
II.- LEGEZKO OINARRIA ETA NAHITAEZ ERANTZUN BEHARRA	3
III.- GALDE-SORTEN EGITURA	4
IV.- ALDIZKAKOTASUNA ETA BILTZEKO MEKANIKA	5
V.- GALDE-SORTAK BETETZEA	8
A.- Azal orokorra	8
B.- Lurzoruari buruzko joan den urteko galde-sortaren azala	9
VI.- GLOSARIOA	24
VII. ERANSKINAK	27
A. Azalak	27
B. Galde-sortak	28
C. Aurkezpen gutuna, erantzun ez dutenei bidaltzekoa, eta galdera ohikoenak	33
D. Obra Handiko Lizentziaren galde-sorta (sustatzaileentzat)	39



I.- AURKEZPENA

Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko estatistika-eragiketa Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailaren estatistika-lanik garrantzitsuenetako bat da; izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoan garatutako eraikuntza-jarduera osoari buruzko informazioa eskaintzen du.

Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiroko sailburuaren 1989ko azaroaren 21eko Aginduaren ¹ bidez hasi zen indarrean; gure erkidegoan informazio-gabezia zegoen eraikuntzarekin eta birgaitzearekin loturiko jardueraren gainean, eta estatistika horren bidez hutsune hori bete nahi zen. Aldi berean, 78/166/EEE Zuzentarauari erantzuteko ere baliatu nahi zen, gai horri buruzko informazio uniformeak eskatzen baitzuen.

Zuzentzarau horri esker, orduko Obra Publiko eta Hirigintzako Ministerioak, Gorteekiko Harremanetarako eta Gobernuko Idazkaritzaren Ministerioaren 1989ko maiatzaren 29 Aginduaren bidez (Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistikei buruzkoa, maiatzaren 31ko BOEn)², eragiketaren funtzionamendua arautu zuen estatu osorako. Euskal Autonomia Erkidegoak bildu eta lantzen du gai horren gaineko informazioa eta Sustapen Ministeriora bidaltzen du, esfortzuak bikoiztu behar ez izateagatik eta informazio-emaitzak gehiegi ere ez molestatzeagatik.

Gerora, udal-etxebizitza tasatuak, alokairuko udal-etxebizitzak eta etxebizitza babestua egiteko udal-lurzorua ere txertatu dira azterketaren eremuan.

Estatistika-eragiketa hori oso handia da eta, horregatik, gizarte-eragile ugari daude sartuta tartean: obra-lizentziak eta estatistikaren galde-sortak jasotzen dituzten organoak izaki, Euskal Autonomia Erkidegoko udal guzti-guztiak, enpresa sustatzaile-erakitzaileak edo, horien izenean, obra bat gauzatzen duten profesionalak, Saila bera (eragiketa osoaren koordinatzaile den heinean), eta informazioa bildu eta lantzen duten teknikari guztiak.

II.- LEGEZO OINARRIA ETA NAHITAEZ ERANTZUN BEHARRA

Eraikuntzaren eta Etxebizitzaren Estatistika (EEEE) azaroaren 9ko 10/2023 Legeak (2023-2026 Euskal Estatistika Planarenak) arautzen du, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko Legea hirugarren aldiz aldatzen duenak (122411 kodearekin); beraz, honako hau xedatzen du: Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko apirilaren 23ko 4/1986 Legearen 7. eta 10. atalak **derrigorrezko erantzuna** ematen duen estatistika ofiziala dira.

Beraz, udalek eta sustatzaile/erakitzaileek edo obra handiko lizentzien eskaerak egiten dituztenek nahitaez bete behar dituzte estatistikako galde-sortak.

¹ http://www.euskadi.net/cgi-bin_k54/bopv_20?c&f=19891129&a=198903265

² <http://www.boe.es/boe/dias/1989/05/31/pdfs/A16282-16288.pdf>

III.- GALDE-SORTEN EGITURA

Orain, Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistikak formatu berria du; 4 galde-sorta eta bi azal ditu (Ikus I. koadroa):

- **Obra handiko lizentziari buruzko laburpen-orriaren galde-sorta – A blokea** (UET barne hartuta. Hilean behin)
- **Obra handiko lizentziari buruzko galde-sorta luzea** (Eraikinak eraikitzeko estatistikari buruzko galde-sortaren baliokidea: C.E.-1 ered.) (Ez da aldatu; hilean behin)
- **Udal lurzoruaren lorpenari buruzko galde-sorta – B blokea** - (Hilean behin)
- **Alokairuko etxebizitzaren udal parkeari buruzko galde-sorta – C blokea** (Urtean behin).

I. koadroa. Galdesortak blokearen, erreferentzia-daten, bilketen, informatzaileen eta bidalketen arabera. EDYVI

BLOKEA	SUSTAPEN PUBLIKOKO ETXEBIZITZETARAKO LURZORUA LORTZEAREN ESTATISTIKA	INFORMAZIOAREN ERREFERENTZIA-DATA	BILKETAREN DENBORA-ERREFERENTZIA	INFORMATZAILEA	SAILERA BIDALI DEN EGUNA
PORTADA OROKORRA	AZALA: ERAIKUNTZARI ETA ETXEBIZITZARI BURUZKO ESTATISTIKA	AURTENGO URTEA	HILEKOA	UDALETXEAK	ERREFERENTZIA-HILABETEA + 10 EGUN
A	OBRA HANDIEN LIZENTZIAREN ESTATISTIKA (LABURPEN-ORRIA)	AURTENGO URTEA	HILEKOA	UDALETXEAK	ERREFERENTZIA-HILABETEA + 10 EGUN
B	SUSTAPEN PUBLIKOKO ETXEBIZITZETARAKO LURZORUA LORTZEAREN ESTATISTIKA	AURTENGO URTEA	HILEKOA	UDALETXEAK	ERREFERENTZIA-HILABETEA + 10 EGUN
C	ALOKAIRUKO ETXEBIZITZEN UDAL PARKEARI BURUZKO ESTATISTIKA	AURREKO URTEKO ABENDUAREN 31	URTEKOA	UDALETXEAK	ERREFERENTZIA-HILABETEA + 10 EGUN
GALDERA-SORTA ZABALA	OBRA HANDIRAKO LIZENTZIAREN GALDERA-SORTAK (GALDERA-SORTA ZABALA)	AURTENGOA ETA AURREKO URTEKOA	HILEKOA	ENPRESA SUSTATZAILEAK, ERAIKITZAILEAK, ETAB.	ERREFERENTZIA-HILABETEA + 10 EGUN
BLOKEA	SUSTAPEN PUBLIKOKO ETXEBIZITZETARAKO LURZORUA LORTZEAREN ESTATISTIKA	INFORMAZIOAREN ERREFERENTZIA-DATA	BILKETAREN DENBORA-ERREFERENTZIA	INFORMATZAILEA	SAILERA BIDALI DEN EGUNA
AURREKO URTEKO LURZORUARI BURUZKO AZALA	AZALA / SUSTAPEN PUBLIKOKO ETXEBIZITZETARAKO LURZORUA LORTZEARI BURUZKO ESTATISTIKA	AURREKO URTEA	HILEKOA	UDALETXEAK	AURTENGO MARTXOA
B	SUSTAPEN PUBLIKOKO ETXEBIZITZETARAKO LURZORUA LORTZEAREN ESTATISTIKA	AURREKO URTEA	HILEKOA	UDALETXEAK	AURTENGO MARTXOA



IV.- ALDIZKAKOTASUNA ETA BILTZEKO MEKANIKA

Galdeketak eskuragarri daude [sailaren webgunean](#). **PORTADA OROKORREKIN** batera, Obra Handirako Lizentziaren Laburpen Orriko galdera-sortak –A Blokea (krema koloreko galdera-sorta)–, Sustapen Publikoko Etxebizitzetarako Lurzorua Lortzeko galdera-sortak -B Blokea (kolore berdeko galdera-sorta) - eta Alokairurako Etxebizitzen Udal Parkeari buruzko galdera-sorta -C blokea (kolore zuriko galdera-sorta) daude.

Sustapen publikoko etxebizitzetarako lurzoruko jarduketak udaletan oso ohikoak ez direnez, urte bakoitzaren amaieran kontaktu berezi bat egingo da atal hau betetzeko; horretarako, urtean egindako jarduketak jasoko dira, eta jarduketaren hileko **PORTADA OROKORREAN** sartuko dira, nahiz eta aurreko hiruhilekoa izan.

Udalak galdetegiak paperean bete nahi baditu, galdetegi bakoitzaren ale nahikoak bidaliko dira, udal bakoitzak hala eskatuta, eta, gehiago behar izanez gero, bilketa-langileei eskatu ahal izango die, posta elektronikoz (estadisticas-vivienda@euskadi.eus), edo, hala badagokio, Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailaren web-eko [Eraikuntzaren eta Etxebizitzen Estatistika - EEEE \(122411\)](#) ataleko [Galdesortak](#) ataletik deskargatu ahal izango ditu:

<https://www.euskadi.eus/informazioa/eraikuntza-eta-etxebizitzari-buruzko-estadistika-galde-sortak/web01-s2ing/eu/>

Estatistika-ataria: <https://www.euskadi.eus/lurralde-plangintza-etxebizitza-eta-garraio-sailaren-estadistikak/web01-s2ing/eu/>

Paperean betez gero, Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailera eta haren berariazko estatistika-organora bidaltzeko frankeatutako gutun-azalak ere erantsiko zaizkio.

Hauek dira urte honetarako betetzeko aukerak:

1. Sustatzaileek, eraikitzaileek edo beste partikular batzuek bete beharreko Obra handiko lizentziaren galde-sorta (GALDE-SORTA LUZEA) izan ezik, gainerako dokumentuak modu independentean funtziona dezaketen orriekin osatzen dira.
2. Hilean behin, Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistikaren azal orokorra (**AZAL OROKORRA**) beteko da; hiru kasu nagusi egongo dira:
 - 2.1 Hilabete horretan ez dira Obra handiko lizentziak eman, ez dago lurzorua lortzeko eragiketarik, eta ez da alokairuari buruzko galde-sorta bete behar. **EKINTZA: Azala (AZAL OROKORRA) bidaltzea, aurreko datu horiek adieraziz.**
 - 2.2 Hilabete horretan Obra handiko lizentzia/k eman da/dira eta/edo lurzorua lortzeko eragiketak daude eta ez da alokairuari buruzko galde-sorta bete behar. **EKINTZA: azala (AZAL OROKORRA) bidaltzea, adieraziz galde-sortak daudela eta zenbat, eta atzean dagozkion galde-sortak (A blokea, B blokea eta Obra handiko Lizentziari buruzko GALDE-SORTA LUZEA) eranstea.**



- 2.3 Urtean bilketa egiten den lehenengo hilabetean, alokairuko etxebizitzaren udal-parkeari buruzko galde-sorta bete behar da nahitaez. **EKINTZA: azala (AZAL OROKORRA), alokairuari buruzko galde-sorta (C blokea) eta lizentziei eta lurzoruari buruzko galde-sortak (A blokea, B blokea eta Obra handiko lizentziari buruzko GALDE-SORTA LUZEA) bidaltzea.**
3. Esan dugunez, **joan den urtean** sustapen publikoko etxebizitzetarako lurzoruari buruzko jardunak bildu ez zirenez, aparteko bilketa eta bidalketa egin behar da. Honako bi kasu hauek izango dira:
- 3.1 Jon den urtean, sustapen publikoko etxebizitzetarako lurzorua lortzeko jardunak ez da izan Udalean. **EKINTZA: azala (Joan den urteko LURZORUARI BURUZKO AZALA) bidaltzea, joan den urtean jardunak ez dela izan adieraziz.**
- 3.2 joan den urtean, sustapen publikoko etxebizitzetarako lurzorua lortzeko jardunak izan dira Udalean. **EKINTZA: azala (Joan den urteko LURZORUARI BURUZKO AZALA) bidaltzea, honako hauek adieraziz: joan den urtean jardunak izan direla; galde-sorta kopurua, eta galde-sortak (B blokea), behar bezala beteta.**

II. koadroa. Mota eta hilabetearen arabera bidaltzeko galdera-sortak. EEEE

BLOKEA	ERAIKUNTZARI ETA ETXEBIZITZARI BURUZKO ESTATISTIKAREN GALDETEGIAK	INFORMAZIOAREN ERREFERENTZIA- DATA	URTARRILEKO BIDALKETA	OTSAILETIK ABENDURA BITARTEKO BIDALKETAK
PORTADA OROKORRA	AZALA: ERAIKUNTZARI ETA ETXEBIZITZARI BURUZKO ESTADISTIKA	AURTENGOA	BAI	EZ
A	OBRA HANDIEN LIZENTZIAREN ESTADISTIKA (LABURPEN-ORRIA)	AURTENGOA	BALDIN BADAGO	BALDIN BADAGO
B	SUSTAPEN PUBLIKOKO ETXEBIZITZETARAKO LURZORUA LORTZEAREN ESTADISTIKA	AURTENGOA	BALDIN BADAGO	BALDIN BADAGO
C	ALOKAIRUKO ETXEBIZITZEN UDAL PARKEARI BURUZKO ESTADISTIKA	AURREKO URTEKO ABENDUAREN 31	BAI	EZ
GALDERA- SORTA ZABALA	OBRA HANDIRAKO LIZENTZIAREN GALDERA-SORTAK (GALDERA-SORTA ZABALA)	AURTENGOA	BALDIN BADAGO	BALDIN BADAGO
BLOKEA	ETXEBIZITZETARA BIDERATUTAKO LURZORUA LORTZEAREN ESTADISTIKA. SUSTAPEN PUBLIKOA, AURREKO URTEKOA	INFORMAZIOAREN ERREFERENTZIA- DATA	URTARRILEKO BIDALKETA	OTSAILETIK ABENDURA BITARTEKO BIDALKETAK
AURREKO URTEKO LURZORUAREN AZALA	AZALA / SUSTAPEN PUBLIKOKO ETXEBIZITZETARAKO LURZORUA LORTZEARI BURUZKO ESTADISTIKA	AURREKO URTEA	BAI	EZ
B	SUSTAPEN PUBLIKOKO ETXEBIZITZETARAKO LURZORUA LORTZEARI BURUZKO ESTADISTIKA	AURREKO URTEA	BALDIN BADAGO	EZ



II. koadroan, egin beharreko bidalketak bildu dira, galde-sorta motaren (azala) eta hilabetearen arabera.

Urteko lehen bidalketan (urtarrileko informazioari dagokiona) nahitaez bete eta bidali behar dira **AZAL OROKORRA** eta **C blokea** (alokairuari buruzko galde-sorta). Obra handiko lizentziak eman badira, **A blokea (Laburpen Orria)**, lizentziak adina galde-sorta) eta **Lizentziei buruzko galde-sorta luzea** (lizentziak adina). Sustapen publikoko etxebizitzetarako lurzorua lortzeko jardunak izan badira, **B blokea** (lizentziak adina galde-sorta).

Lehen bidalketa horretan bilduko dira joan den urteko lurzoruari buruzko jardunak (jardunik izan ez bada joan den urteko **LURZORUARI BURUZKO AZALA** soilik) eta joan den urteko **LURZORUARI BURUZKO AZALA**, eta dagozkion galde-sortak (**C blokea**), baldin badaude.

Gainerako bidalketak (otsailetik abendura bitarte): nahitaez bete eta bidali behar da **AZAL OROKORRA**. Obra handiko lizentziak izapidetu badira, **A blokea (Laburpen Orria)**, lizentziak adina galde-sorta) eta **Lizentziei buruzko galde-sorta luzea** (lizentziak adina). Sustapen publikoko etxebizitzetarako lurzorua lortzeko jardunak izan badira, **B blokea** (espedienteak adina galde-sorta).

Obra handien lizentziei dagokienez, estatistika-eragiketetarako beste lankidetzeta-aukera bat da Estatistikako Organo Espezifikuari zuzenean ematea udalak obra-sustatzaileari bidaltzen zaion obra handiko lizentzia ematen denean ematen dituen alkatetzeta-dekretuei buruz duen informazioa, edo obra handien lizentziak kudeatzeko aplikazio informatikoak deskargatuz eskatutako informazioarekin. Kasu horretan, Estatistika Organo Espezifikoko langileek grabatuko dute informazioa aplikazio informatikoan, eta, beharrezkoa izanez gero, udalarekin jarriko dira harremanetan beharrezko informazio gehigarria eskatzeko.



V.- GALDE-SORTAK BETETZEA

A.- Azal orokorra

Hainbat eginkizun betetzen ditu: alde batetik, eragiketaren arduradun zein organismo den identifikatzen du, eta bestetik, estatistikari nahitaez erantzun beharra eta horren legezko justifikazioa aurkezten ditu; aldi berean, agerian uzten du biltzen den informazioaren premia.

Informazioa nondik datorren identifikatzen du –zein udaletatik datorren- eta gainera, galde-sorta moduan prestatua dago, zeren dokumentu hori bakarrik bidali beharko da hilabete horretan obra handiko lizentziarik izapidetu ez bada edo lurzoru-eragiketarik egin ez bada -eta urte hasiera ez bada, orduan jasotzen baita alokairuko etxebizitzari buruzko galde-sorta-. Horretaz gain, eta beste eginkizun nagusietako bat da hori, mota bakoitzeko zenbat galde-sorta dauden zenbatzen du.

Barnean hartuko ditu **Obra handiko lizentziari buruzko Laburpen Orriaren** “galdera iragazkia” (1. galdera), **Udal Lurzoruaren** “galdera iragazkia” (2. galdera), eta **Alokairuari buruzko galde-sortaren** “galdera iragazkia” (3. galdera) (ikus 6. paragrafoa “galdera iragazkia”), baita honako hauek ere:

1. Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailaren Estatistikarako Organo Bereziaren Logoa, eragiketaren arduradun den aldetik.
2. Estatistika horren oinarri den lege-estaldura, sekretu estatistikoaren derrigorrezkotasuna eta babesa.
3. Estatistika justifikatzeko aurkezpen labur bat.
4. Lurralde historikoaren kodea eta udalerrriaren izena hautatzea eskatzen da. Udalerrriaren kodea (grisez egongo da) kodetzaille batek beteko du.

Araba-Álava.....	01	<input type="checkbox"/>		
Lurralde Historikoa	Bizkaia.....	48	<input type="checkbox"/>	UDALERRIA:
	Gipuzkoa.....	30	<input type="checkbox"/>	KODEA:

5. Erreferentziako hilabetea eta urtea (4 digitutan) eskatzen dira.
6. **Lizentziei** buruzko jardunen bat egin ote den galdetzen da (1. galdera), hau da “galdera iragazkia”. Erantzuna **EZ** bada, **lurzoruari** buruzko galde-sortaren “galdera iragazkira” (2. galdera) igaro behar da; erantzuna **BAI** bada, **lizentziei buruzko galde-sortara** (krema-koloreko orria) joan eta lizentziei buruzko galde-sorta guztiak betetakoan, dagokion laukian adierazi behar da **A blokeko (lizentziei buruzko galde-sorta)** zenbat galde-sorta bete diren, eta lurzoruari buruzko galde-sortari (2. galdera) dagokion “galdera iragazkiarekin” egindako prozesua errepikatu behar da.
3. galdera (alokairuari buruzko galde-sortari dagokion “galdera iragazkia”) **erreferentzia-urteko urtarrilean SOILIK** bete behar da; hau da, **urtean behingo galde-sorta** da eta urtea amaitutakoan biltzen da informazioa (abenduaren 31ko erreferentzia).



Jarraian, **AZAL OROKORRAREN** galderak aurkeztuko ditugu:

1	2	3
OBRA HANDIKO LIZENTZIETAN IZAN AL DA ALTARIK,BAJARIK EDO LUZAPENIK HILABETE HONETAN?	HILABETE HONETAN IZAN AL DA BABES PUBLIKOKO ETXEBIZITZAK ERAIKITZEKO LURZORUA LORTZEKO ERAGIKETARIK?	UDAL JABETZAKO ALOKAIKURUKO ETXEBIZITZEI BURUZKO GALDESORTA (Urtez behin, urtarrilean egin)
Ez..... <input type="checkbox"/> 1 Bai..... <input type="checkbox"/> 2 ----- Galdesortien kopurua <input type="text"/>	Ez..... <input type="checkbox"/> 1 Bai..... <input type="checkbox"/> 2 ----- Galdesortien kopurua <input type="text"/>	AMAIERA Ez..... <input type="checkbox"/> 1 Bai..... <input type="checkbox"/> 2

7. Elkarrizketariaren izena eta kodea; grisez agertzen dira (azken biak orri-oinean).
Estatistika-bulegoan jaso ostean bete behar dira eremu horiek.

B.- Lurzoruari buruzko joan den urteko galde-sortaren azala

Sustapen publikoko etxebizitzetarako lurzoria lortzeko joan den urtean egindako jardunen bilketa berezia kudeatzea du helburu. Gogoan izan aurtengoak ere bildu behar direla, baina dagozkion hilabetearen **AZAL OROKORREAN** izango dute eragina.

Azalpen eta identifikazio orokorreko elementuez gain, **Udal Lurzoruaren** "galdera iragazkia" (1. galdera) soilik hartuko du barnean.

AZAL OROKORRAREN berdin-berdina izan behar du, salbuespen batekin: ez da galdera iragazkirik egingo alokairuko edo obra-lizentzietako jardunei buruz, eta 5. paragrafoan aipatzen den informazioa (erreferentziako hilabete eta urtea) azalean bertan jasota agertuko da. Gainerako paragrafoek ez dute inolako aldaketarik **AZAL OROKORRAREKIKO**, eta bete egin beharko da, aurreko kasuetan bezalaxe.

1
JOAN DEN URTEAN IZAN AL DA BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZAK ERAIKITZEKO LURZORUA LORTZEKO ERAGIKETARIK?
Ez..... <input type="checkbox"/> 1 AMAIERA Bai..... <input type="checkbox"/> 2 ----- Galdesortien kopurua <input type="text"/>



A blokea: Obra handiko lizentziari buruzko galde-sorta (Laburpen orria)

Erreferentziako hilabetean obra handiko lizentziak eman badira edo aurreko lizentzietan luzapenik edo bazarik izan bada, mota horretako galde-sorta bat bete behar da nahitaez lizentzia bakoitzeko, eta **AZAL OROKORREAN** ere adierazi behar da.

Jarraian, galde-sorta betetzeko garaian zailtasun handieneko galderak azalduko ditugu:

Orri-goiburua: erreferentziako hilabetea eta urtea adierazi behar dira, baita lizentziari buruzko galde-sortaren zenbakia ere (adibidea: lizentzietan buruzko 4 galde-sorta bete badira, bete beharreko hurrengo lizentzian **galde-sortaren zenbakia** 4 izango litzateke).

URTEA | _ _ _ _ | HILABETEA | _ _ | GALDESORTAREN ZENBAKIA | _ _ |

1.1 galdera *Lizentziaren gakoa* atalean, Udalean erabiltzen den gakoa adierazi behar da, edo bestela, espediente-kodea edo erreferentzia ere jar daitezke. Aldez aurretik adierazitako elementurik ez badugu, bete gabe utzi behar da, baina hurrengo galdera nahitaez bete behar da.

1.2 galdera Lizentzia-eskaeraren sarrera-eguna. Beti bete behar da.

4. galdera. Obraren kokapena. Posta-hurbilketa ofizialeko ahalik eta elementu gehien bete behar dira; besteak beste, honako hauek.

4.7 galdera. *Helbide-osagarria*

Zenbait posta-hurbilketa oso mugatuak direnez, ahalegin handia egin behar da posta-hurbilketako elementu guztiak betetzeko. Horretarako, posta-helbidearen berezko eremuak (entitatea, bide mota, bidearen izena, blokea, zenbakia, bis) ez daudenean, kokapena zehazteko **helbide-osagarria** erabiliko dugu (tokia deskribatzea beste hainbat elementuren bitartez, hala nola, errepideak, topografia-izenak, inguruko beste eraikin bat, eraikinen izena, baserriarena, eta abar).

Posta-hurbilketako elementu argirik edo helbide-osagarriaren elementurik ez badago, baina katastroko edo hirigintzako erreferentziak izanez gero, helbide-osagarriaren hutsunean aipatuko dira.

4		
ADIERAZETAZU OBRAREN KOKAPENAREN HELBIDEA		
1. Erakundea:	
2. Bide mota:	3. Bidearen izendapena:
.....		
4. Blokea: _ _	5. Zb.: _ _	6. Bis: _
7. Helbidearen osagarria:		

Behar bezala betetzen bada, IFKren bidez ondoriozta daiteke nortasun juridikoaren mota:

0-9 bitarteko zifra – Espainiako pertsona fisikoak.

- A - Sozietate Anonimoak.
- B - Sozietate Mugatuak.
- C - Sozietate Kolektiboak.
- D - Sozietate Komanditarioak.
- E – Ondasun Erkidegoak eta jaso gabeko jarauntsiak.
- F – Sozietate Kooperatiboak.
- G - Elkarteak.
- H - Jabetza horizontaleko erregimeneko jabeen erkidegoak.
- J - Sozietate zibilak, nortasun juridikoarekin edo gabe.
- K – Pertsona fisikoak, Espainiako nazionalitatea dutenak, 14 urtetik beherakoak eta Espainian bizi direnak.
- L – Pertsona fisikoak, Espainiako nazionalitatea izanik atzerrian bizi direnak.
- M – Pertsona fisikoak, Espainiako nazionalitate ez eta AIZrik ere ez dutenak, dela aldi baterako, nahitaez izan behar dutelako, dela behin betiko, ez dutelako nahitaez izan beharrik.
- N - Entitate atzerritarrak.
- P - Tokiko Korporazioak.
- Q – Organismo publikoak.
- R – Erljioarekin loturiko kongregazio eta erakundeak.
- S - Estatuko eta Autonomia Erkidegoetako Administrazioaren Organoak.
- U - Aldi baterako enpresa-elkarteak.
- V – Gainerako gakoetan definitu gabeko bestelako motak.
- W – Espainian bizi ez diren entitateen ezarpen iraunkorrak.
- X, Y, Z - Pertsona fisiko atzerritarrak.

7. galdera. Nolako obra handia egingo den adierazi behar da.

7	
ADIERAZI ZER OBR HANDI MOTA EGINGO DEN	
A. Eraikuntza berria	
a. erabateko eraispenarekin..... <input type="checkbox"/> 1	} 8.1G
b. eraispenik gabe..... <input type="checkbox"/> 2	
B. Birgaitzea	
a. eraispen partzialarekin <input type="checkbox"/> 3	} 7BG
b. eraispenik gabe (handitzea, erreforma eta/edo berritzea)..... <input type="checkbox"/> 4	
C. Erabateko eraispena	
Esklusiboki..... <input type="checkbox"/> 5 →	AMAIERA

A.a. Oin berria, erabateko eraispen eta guzti: eraikin berri bat egiten da, aurretik zegoena erabat eraitsi ostean.

A.b. Oin berria, eraispenik egin gabe: eraikin berri bat egiten da, aldeztu aurretik eraispenik egin gabe.

B.a. Birgaitzea, eraispen partzial eta guzti: ez da eraikin berririk egiten, eraispen partzialak eginda ere.

B.b. Birgaitzea, eraispenik egin gabe: (handitzea, erreforma eta/edo zaharberritzea, eraispenik egin gabe): ez da eraikin berririk egiten, ezta eraispen partzialik ere.

C. Soilik erabateko eraispena: eraikinak desagerrarazten dituenak, eta lizentzia horretan ez da eskatzen eraitsitako eraikinaren lurretan eraikin berria eraikitzerik.



Birgaitze-kasuetan, obra horrek azalera handitzea dakarren galdetuko da, eta, ezezkoa bada, obrak bizitegi-erabilera (osoa edo partziala) duen.

Bizitegi-erabilera izango balu, birgaitzearen karakterizazioa bideratuko litzateke (P9.2).

Halakorik ez badu, eraikina zer jarduera ekonomikotara bideratuko den galdetzen da (P8.2).

7.B

BIRGAITZEKO AZALERA HANDITU BEHAR DA? Ezezkoa bada, BIZITEGI ERABILERARAKO ETXEBIZITZETARA DAGO BIDERATUTA OBRA OSOA EDO ZATIREN BAT?

1. Azalera handitzea

A. Bai 1 → 8.1G

B. Ez 2 - ↓

2. Bizitegi-erabilera?

A. Bai 1 → 8.2G

B. Ez 2 → 8.2G

8.1.	8.1.A
Eraikuntza berriko edo azalera handituz egin beharreko birgaitzeko OBRA BIZITEGI ERABILERARAKO ETXEBIZITZETARA BIDERATUTA DAGO OSORIK EDO PARTZIALKI?	BIZITEGI ERABILERAREKIN LOTUTAKO AZALERA ZENBATEKOA DEN ADIERAZ DEZAKEZU (eraikitako m ² -tan)? Eregistratu obra motari buruzko 7. galderan jasotako informazioa galdetegiarekin jarraitzeko.
A. Bai <input type="checkbox"/> 1 → 8.1.AG B. Ez <input type="checkbox"/> 2 → 8.1.BG	1. Bizitegi-erabilera: _____ m ² ↓ 2. Obra mota a. Eraikuntza berria <input type="checkbox"/> 1 → 8.1G b. Birgaitzea <input type="checkbox"/> 2 → 8.2G

Oin berriko kasuetan eta birgaitzeak azalera handitzea dakarrenean, bizitegi-erabilerarako etxebizitzetara buruz ere galdetzen da; baiezkoan, erabilera horretarako azalera (eraikitako metro karratutan) jasotzeko³.

Obra-motari buruzko jatorrizko informazioa erreplikatzen da, galdetegiaren fluxua dagozkion helbideetara bideratzeko (P9.1, solairu berriaren kasuan, eta P9.2, birgaitzearen kasuan).

8.1.B. ERAIKINAREN AZALERA OSOA ADERAZ DEZAKEZU (eraikitako m²-tan)?

1. Bizitegi-erabilera EZ: | _____ | m² ↓
8.2G

Bizitegitarako erabilerarik ez dagoen kasuetan (P8.1=2), eraikinaren azalera osoaren berri eman beharko da (eraikitako metro karratutan).

Horiek bete ondoren, eraikuntza zein jarduera ekonomikotara bideratuko den galdetu da (P8.2).

³ Eraiki edo birgaitu beharreko etxebizitzak erabilera turistikorako bakarrik erabiltzen badira, erabilera bizitegirako ez dela ulertuko da, eta 8.2 galderan ostalaritzako kategorian sartuko da

P8.2. Etxebizitzetarako ez bada erabiltzen, zein jardueratarako erabiliko da eraikuntza?

8.2. EZ BADA BIZTEGI ERABILERA IZANGO DUTEN ETXEBIZIENTZAT IZANGO ZER JARDUERETARAKO ERABILIKO DA ERAKUNTZA

A. Nekazaritza, abeltzaintza edo arrantza.....	<input type="checkbox"/> 1	} → AMAIERA	F. Garraioa, biltegiatzea eta komunikazioak.....	<input type="checkbox"/> 6	} → AMAIERA
B. Industria.....	<input type="checkbox"/> 2		G. Finantza-eta enpresa-zerbitzuak, higiezin-jarduerak eta herri-administrazioa.....	<input type="checkbox"/> 7	
C. Erakuntza.....	<input type="checkbox"/> 3		H. Hezkuntza.....	<input type="checkbox"/> 8	
D. Merkataritza-zerbitzuak eta konponketa.....	<input type="checkbox"/> 4		I. Osasun jarduerak.....	<input type="checkbox"/> 9	
E. Ostalaritza.....	<input type="checkbox"/> 5		J. Zerbitzu-sektoreko beste jarduera batzuk.....	<input type="checkbox"/> 10	

Sailkapenak EJSNko (Jarduera Ekonomikoen Sailkapen Nazionala) talde bati dagozkie, eta webgune honetan aurki daitezke:

https://eu.eustat.eus/documentos/codigos_e.html

Obra bizitegitarako ez den erabilerarako bada, obra handirako lizentziari buruzko galdetegia amaituko da.

9. galdera. Bizitegi-erabilerarako obra-mota: solairu berria/birgaitzea. Obra bizitegi-etxebizitzetara zuzentzen bada, eraikin berrirako eraikuntzara zuzendua dagoen (9.1 galdera egiten da) edo birgaitze bat den (9.2 galdera egiten da) planteatzen da.

9.1.
ADIERAZ EZAZU SUTAPENEKO ETXEBIZITZEN KOPURUA
1. Etxebizitza berrien kopurua [] [] → <input type="text" value="10"/>
9.2. BIRGALTUKO DIREN ELEMENTUAK
1. Erkidegoaren elementuak solik <input type="checkbox"/> 1 → AMAIERA
2. Etxebizitzak (erkidegoaren elementuekin edo gabe) <input type="checkbox"/> 2
Lehen zauden etxebizitzaren kopurua [] []
Azkenean izango diren etxebizitzaren kopurua [] []

9.1. Galdera. Eraikin berri baten eraikuntza bada, etxebizitza berrien kopurua jasoko da.

9.2. Galdera. Birgaitze obra bada, ea elementu komunei bakarrik eragiten dien jasoko da, kasu horretan galdera-sorta amaituz; osteraz, etxebizitzaren eraikuntzak badira, aurretiko etxebizitza kopurua eta amaierako etxebizitza kopurua jasoko dira.

10. galdera. Etxebizitza kopurua, etxebizitzaren erregimenaren arabera:

1. Libre: babes publikoko inolako erregimenen eraginpean ez dagoen etxebizitza.

2. (BOE) Erregimen Orokorreko Babes Ofizialeko Etxebizitza:

Babes Ofizialeko Etxebizitza, baldintza jakin batzuk betetzen dituen azalerari, diseinu-arauei eta kalitateari dagokionez. Administrazioak ezarritako gehieneko salmenta- eta errenta-prezioak ez ditu gainditu behar, eta pertsona fisikoen ohiko bizileku iraunkor izan behar du.

3. (ES) Erregimen Bereziko Babes Ofizialeko Etxebizitza edo Etxebizitza Soziala: Babes Publikoko Etxebizitza, diru-sarrera txikiagoak dituzten gizarte-sektoreetara bideratua; gehieneko salmenta- eta errenta-prezioak txikiagoak dira babes ofizialeko gainerako etxebizitzetan aplikatu beharreko erregimen orokorrean ezarritakoak baino.


4. (BOET) Babes Ofizialeko Etxebizitza [Erregimen Tasatukoa], autonomia-erkidegoko araudiaren arabera: Babes Publikoko Etxebizitza mota horrek erreferentziako bi parametro garrantzitsu ditu: salmenta-prezioa eta eskatzaileen diru-sarrerak; salmenta-prezioari dagokionez, ezin izango du gainditu erregimen orokorreko BOEen prezioa 1.7 aldiz; eskatzaileen diru-sarrerak, berriz, ez dira izango erregimen orokorreko BOEen onuradunen gehieneko sarrerak baino 1.3 aldiz handiagoak.

5. Zuzkidura Alojamendua: bizileku-eraikina, titulartasun publikokoa, etxebizitza babestuaren arloan aurreikusitako laguntzen babesa duena eta erabiltzaileek aldi baterako okupatua zuzenbidean onartutako edozein formularen bidez (errentamendua, logela-eskubidea, usufruktua...); zuzkidurakoa izaki, ezin izango da saldu inolaz ere

6. Birkokapena: etxebizitza babestua, hiri-biziberritzeko jardunetan maiz agertu ohi den arazoa konpontzera bideratua, arazo horrek etxebizitza jakin batzuk eraistea edo uztea baitakar berekin, aldi baterako edo behin betiko. Eraitsi edo utzi beharreko etxebizitza horiek agian oso zaharrak izan daitezke, baina bizilagunentzat oraindik baliagarriak ziren.

7. (EOUET) Erregimen Orokorreko Udal Etxebizitza Tasatuak. Babes Publikoko etxebizitzak, udalek zuzenean sustatzen dituztenak; salmenta-prezioa eta onuradunen gehieneko diru-sarrerak ez ezik, onuradunek bete beharreko baldintzak eta jarraitu beharreko esleipen-prozesua ere erabaki dezakete udalek.

8. (EBUET) Erregimen Bereziko Udal Etxebizitza Tasatuak: Babes Publikoko Etxebizitza mota horrek erregimen tasatu autonomikoko BOEen ildo berari jarraitu behar dio, hau da, erreferentziako bi parametro garrantzitsu ditu: salmenta-prezioa eta eskatzaileen diru-sarrerak; salmenta-prezioari dagokionez, ezin izango du gainditu erregimen orokorreko BOEen prezioa 1.7 aldiz; eskatzaileen diru-sarrerak, berriz, ez dira izango erregimen orokorreko BOEen onuradunen gehieneko sarrerak baino 1.3 aldiz handiagoak.



Lizentziaren espedientea aztertu ostean, erregimen mota zein den ez badakigu, erregimen librea esleituko zaio. Babes ofizialeko etxebizitza baldin bada, baina zein motatakoa den zehaztu gabe, aurreko kasuan bezalaxe espedientea aztertu behar da, eta hor ere agertzen ez bada, Etxebizitza eta Hiri Agenda sailaren lurralde-ordezkaritzetan kontsulta egin beharko da. Ikerketak fruiturik ematen ez badu, BOE (Erregimen Orokorreko Babes Ofizialeko Etxebizitza) izendatuko dira. **Adierazitako guztizkoa eta batugaiak bat datozela egiaztatu behar da.**

11. galdera: Zein da eraiki edo birgaitu beharreko etxebizitzaren **azalera erabilgarria**? **Azalera erabilgarria** zera da, etxebizitzaren kanpoko hormen barruan hartutako metro karratuak.

12. galdera: Zein da etxebizitza horietarako aurreikusitako **erabilera nagusia**?

Jarraian, hainbat kontzeptu azalduko ditugu:

Salmenta

Alokairua: udal-etxebizitza baten alokairua honako hau da: elkarrekiko hitzarmen bat; horren bidez, udala edo udal-sozietate berezi bat behartuta dago norbaiti etxebizitza baten erabilera eta luperketa edo gozamina uztera denbora jakin baterako, betiere kontraprestazio edo prezio baten truke.

Beste bat: kategoria horretan sartzen dira, besteak beste, honako hauek:

- **Usufuktu edo gozamina:** etxebizitzaz gozatzeko eskubidea, betiere kontserbatzeko betebeharrarekin, konpentsazio ekonomikorik tartean izan gabe.
- **Lagapena:** etxebizitza bati uko egitea beste pertsona baten alde.

13. galdera: Zein da udal-etxebizitza tasatuen **batez besteko salmenta-prezioa m² bakoitzeko** (eurotan)?

1.-Etxebizitzaren m² bakoitzeko prezioa: etxebizitzaren prezioa zati etxebizitzaren m² kopurua eginda kalkulatzen da.

2.- Batez besteko salmenta-prezioa, lizentzian hainbat prezioetako etxebizitzak baldin badaude, batez besteko haztatuaren bidez lortzen da:

$$\text{Batez besteko salmenta-prezioa m}^2 \text{ bakoitzeko} = \frac{n_1 x_1 + n_2 x_2}{n_1 + n_2}$$

Eta formula horretan:

$n_i = i$ motako etxebizitzaren kopurua

i erregimen orokorreko udal-etxebizitza tasatua (EOUET) izan daiteke, edo erregimen bereziko udal-etxebizitza tasatua (EBUET)

$x_i = i$ motako etxebizitzaren m² bakoitzeko prezioa

Adibidea: demagun honako datu hauek ditugula:

- 15 EOUET; 7 etxebizitza 90 m²-koak dira (m² bakoitzeko prezioa 1.300 euro)

8 etxebizitza 70 m²-koak dira (m² bakoitzeko prezioa 1.250 euro)

-12 EBUET; 5 etxebizitza 90 m²-koak dira (m² bakoitzeko prezioa 1.700 euro)

7 etxebizitza 120 m²-koak dira (m² bakoitzeko prezioa 1.750 euro)

Hori horrela, m² bakoitzeko batez besteko salmenta-prezioa honako formula honen bidez lortuko dugu:

$$\frac{7 \times 1300 + 8 \times 1250 + 5 \times 1700 + 7 \times 1750}{7 + 8 + 5 + 7} = 1475,93 \text{ euro}$$

14. galdera: galdera horretan, galde-sortako gainerako galderetako aukerekin bat ez datozen kasuak jaso daitezke. Beraz, paragrafo horretan ematen den informazioarekin datu interesgarriak bil daitezke; hain zuzen ere, bestela alde batera geratuko lireratekeen datuak.



B blokea. Babes publikoko etxebizitzetarako lurzoruari buruzko galde-sorta

Galde-sorta horren bidez, babes publikoko etxebizitzak eraikitza bideratutako lurzorua (**zati bat edo osorik**) lortzeak eragindako udal-jardun guztiak bilduko dira. Hortaz, balizko bi kasu aipatuko dira:

- Udalek edo udaletako sozietate publikoek lurzorua lortzea, baina soilik babes publikoko etxebizitzetara (erregimen librea ez den beste edozein kasu) bideratutako lurzorua (lurzoruari buruzko galde-sortaren sailkapenean: **9. galdera**, 2tik 8ra bitarteko kasuak).
- Udalak edo udaleko sozietate publikoak lurzorua lortzea, baina etxebizitza libreak eta babes publikokoak eraikitza bideratutako lurzorua. Kasu hori oso ohikoa izaten da.

1. galdera. *Jardun mota:*

Administrazioen artean edo sektore pribatuarekin lurzorua elkartrukatzeko eragiketak – permuta– ere sartuko dira erosketarekin batera, betiere udalaren helburua honako hau baldin bada: azalera hori, osorik edo zati bat, etxebizitza babestua sustatzera bideratzea.

Nahitaezko desjabetzea ere izan daiteke lurzorua lortzeko beste bide bat. Kasu oso berezietan, doako lagapenen edo birpartzelazioen bidez ere lor daiteke lurzorua.

Hemen aipatu gabeko beste biderik izanez gero, antzekoena markatu eta **Oharrak** atalean zehaztu behar da: **10. galdera**.

2. galdera. *Espdediente-kodea:* Udalaren barneko gako edo identifikazioa, kudeaketako dokumentua edo dokumentuak, nahiz politikoak sailkatzeko.

3. galdera. *Lortutako lurzorua identifikatzeko gakoa:* lursailari edo lursailei esleitutako identifikazioa, dela ikuspegi katastraletik, dela hirigintza-ikuspegitik. Katastroko gakoek lehentasuna izango dute.

4. galdera. *Lortzeko data:* desjabetzearen, erosketaren, permutaren... egintza juridikoa zein egunetan izan den eta jasota geratu den adierazi behar da.

5. galdera. *Lurzoruaren kokapena.* Hainbat eremu bete behar dira, ahal dela posta-hurbilketako elementu ofizialak baliatuta.

5.7 galdera. *Helbide-osagarria*

Zenbait posta-hurbilketa oso mugatuak direnez, ahalegin handia egin behar da posta-hurbilketako elementu guztiak betetzeko. Horretarako, posta-helbidearen berezko eremuak (entitatea, bide mota, bidearen izena, blokea, zenbakia, bis) ez daudenean, kokapena zehazteko **helbide-osagarria** erabiliko dugu (tokia deskribatzea beste elementuen bitartez, hala nola, errepideak, topografia-izenak, inguruko beste eraikin bat, eraikinen izena, baserriarena, eta abar).



6. galdera. Lurzoruaren azalera osoa: erosketan, desjabetzean, permutan edo birkalifikazioan eskrituratutako lurzoruaren guztizkoari dagokio. Metro karratutan (m²) adieraziko da. Eremuan bi dezimal jar daitezke.

7. galdera. Eraikitako guztizko azalera: higiezin baten eraikitako guztizko azalera kalkulatzeko, higiezinaren solairu guztietako azalera eraikiak batu behar dira. Sabaiko metro karratuetan (M2T) adieraziko da, bi dezimalekin.

Parametro horri dagokionez, soto eta erdisotoetako azalera eraikia ez da aintzat hartuko. Aitzitik, solairuarten, atikoen eta teilatupeko aprobetxamenduen azalera beti zenbatu behar da; teilatupeko aprobetxamenduei dagokienez, 1,50 m-tik gorako altuera librea duten area guztiak hartuko dira kontuan.

8. galdera. Lurzoruaren balorazioa, hala badagokio.

9. galdera. Etxebizitzak erregimen motaren arabera: A blokeko (Obra handiko lizentzia-laburpenen orria) 10. galderan bezalaxe, etxebizitzak honela sailkatzen dira erregimen motaren arabera.

1. Librea: inolako babes-erregimenen eraginpean ez dagoen etxebizitza. Ohiko kasua izaten da udalak lursail batzuk lortzea eta zati bat etxebizitza libreak egiteko erabiltzea, eta beste zati bat babestuetarako.

2. (BOE) Erregimen Orokorreko Babes Ofizialeko Etxebizitza:

Babes Publikoko Etxebizitza, baldintza jakin batzuk betetzen dituen azalerari, diseinu-arauei eta kalitateari dagokienez. Ez ditu gainditu behar Administrazioak ezarritako gehieneko salmenta- eta errenta-prezioak, eta pertsona fisikoen ohiko bizileku iraunkor izan behar du.

3. (ES) Erregimen Bereziko Babes Ofizialeko Etxebizitza edo Etxebizitza Soziala: Babes Publikoko Etxebizitza, diru-sarrera txikiagoak dituzten gizarte-sektoreetara bideratua; gehieneko salmenta- eta errenta-prezioak txikiagoak dira babes ofizialeko gainerako etxebizitzetan aplikatu beharreko erregimen orokorrean ezarritakoak baino.

4. (BOET) Babes Ofizialeko Etxebizitza [Erregimen Tasatukoa], autonomia-erkidegoko araudiaren arabera: Babes Ofizialeko Etxebizitza mota horrek erreferentziako bi parametro garrantzitsu ditu: salmenta-prezioa eta eskatzaileen diru-sarrerak; salmenta-prezioari dagokionez, ezin izango du gainditu erregimen orokorreko BOEen prezioa 1.7 aldiz; eskatzaileen diru-sarrerak, berriz, ez dira izango erregimen orokorreko BOEen onuradunen gehieneko sarrerak baino 1.3 aldiz handiagoak.

5. Zuzkidura Alojamedua: bizileku-eraikina, titulartasun publikokoa, etxebizitza babestuaren arloan aurreikusitako laguntzen babesa duena eta erabiltzaileek aldi baterako okupatua zuzenbidean onartutako edozein formularen bidez (errentamendua, logela-eskubidea, usufruktua...); zuzkidurakoa izaki, ezin izango da saldu inolaz ere



6. Birkokapena: Etxebizitza babestua, hiri-biziberritzeko jardunetan maiz agertu ohi den arazoa konpontzera bideratua, arazo horrek etxebizitza jakin batzuk eraistea edo uztea baitakar berekin, aldi baterako edo behin betiko. Eraitsi edo utzi beharreko etxebizitza horiek agian oso zaharrak izan daitezke, baina bizilagunentzat oraindik balagarriak ziren.

7. (EOUET) Erregimen Orokorreko Udal Etxebizitza Tasatuak. Babes Publikoko etxebizitzak, udalek zuzenean sustatzen dituztenak; salmenta-prezioa eta onuradunen gehieneko diru-sarrerak ez ezik, onuradunek bete beharreko baldintzak eta jarraitu beharreko esleipen-prozesua ere erabaki dezakete udalek.

8. (EBUET) Erregimen Bereziko Udal Etxebizitza Tasatuak: Babes Publikoko Etxebizitza mota horrek erregimen tasatu autonomikoko BOEen ildo berari jarraitu behar dio, hau da, erreferentziako bi parametro garrantzitsu ditu: salmenta-prezioa eta eskatzaileen diru-sarrerak; salmenta-prezioari dagokionez, ezin izango du gainditu erregimen orokorreko BOEen prezioa 1.7 aldiz; eskatzaileen diru-sarrerak, berriz, ez dira izango erregimen orokorreko BOEen onuradunen gehieneko sarrerak baino 1.3 aldiz handiagoak.

Erregimen mota ezezaguna denean, babes ofizialeko etxebizitzetarako aurreikusitako lurzorua baldin bada (baina etxebizitza zein motatakoa den zehaztu gabe), espedientea aztertu behar da, eta hor ere agertzen ez bada, Etxebizitza eta Hiri Agenda sailaren lurralde-ordezkaritzetan kontsulta egin beharko da, Sailak kudeatzen duen beste erregimenen batekoak edo BOEak direla baztertzeko. Ikerketak fruiturik ematen ez badu, BOE (Erregimen Orokorreko Babes Ofizialeko Etxebizitza) izendatuko dira.

Adierazitako guztizkoa eta batugaiak bat datozela egiaztatu behar da.

10. galdera: Galdera horretan, galde-sortako gainerako galderetako aukerekin bat ez datozen kasuak jaso daitezke. Beraz, paragrafo horretan ematen den informazioarekin datu interesgarriak bil daitezke; hain zuzen ere, bestela alde batera geratuko liratekeen datuak.

C blokea. Alokairurako udal-jabetzako etxebizitzaren parkeari buruzko galde-sorta

Alokairuko udal-etxebizitzari buruzko galde-sortaren helburua honako hau da: data jakin batean (urte bakoitzeko abenduaren 31n), udalaren jabetzako edo jabejidetasuneko alokairurako parkearen STOCKaren berri izatea, ezaugarrien arabera; horrekin batera, epe motz eta ertainerako aurreikuspenak ere interesatzen zaizkigu.

Hortaz, jabe bakarra izan gabe (Foru Aldundien, Eusko Jaurlaritzaren eta abarren jabetzakoak), udala edo udaleko sozietateren bat alokairurako etxebizitzak kudeatzen ari bada, etxebizitza horiek ere sartu behar dira.

Partikularren etxebizitzak alokairura bideratzen badira udalaren laguntzari eta kudeaketari esker (Eusko Jaurlaritzak ALOKABIDE zerbitzuaren bidez egiten duen moduan), etxebizitza horiek ez dira aintzat hartuko, baldin eta udal-jabetzara igarotzen ez badira.

Funtzionario, apaiz edo, oro har, erlijiosoentzako etxebizitzak sartu egin behar dira, betiere erabileraren truke kontraprestazioren bat (soldataren bidez ordaindu gabeko zerbitzu bat ematea) edo prezioaren bat baldin badago.

Jarraian, galde-sortaren bloke horretan agertuko diren zenbait kontzeptu edo termino azalduko ditugu.

1. eta 2. galderak.

Udal-etxebizitza baten **alokairua** honako hau da: elkarrekiko hitzarmen bat; horren bidez, udala edo udal-sozietate berezi bat behartuta dago norbaiti etxebizitza baten erabilera eta luperketa edo gozamina uztera denbora jakin baterako, betiere kontraprestazio edo prezioaren baten truke.

Item horietan, aipatutako aldiatarako (hurrengo urterako eta hurrengo lau urteetarako) udal-jardunen aurreikuspenei buruzko informazioa eman behar da, betiere jardun horien helburua alokairurako etxebizitzak antolatu edo areagotzea bada.

Aipatutako aldietan garatu beharreko jardunak barne hartuko dira, beste urteren batean (aurrekoak) planifikatu ote diren kontuan izan gabe. Plan zehatzak gauzatzeari buruzko galdera da, ez agenda politikoetan sartutako planen balizko onarpenari buruzkoa, edo helburu bera lortzeko beste hainbat erakunderekin egindako hitzarmenei buruzkoa. Horrela errazagoa izango da eskatutako informazio guztia betetzea.

Udal-parkea sortzeko/handitzeko bi bide eskaintzen dira: erosketa, sustapena eta/edo eraikitzea. Eta gainera, beste aukera ireki bat ere badago, zehaztu beharrekoa.

Gutzizkoak egiaztatu egin behar dira.

**3. galdera. Alokairuko etxebizitzaren aukera eta kopurua:**

Aurreko urteko abenduaren 31 erreferentziatzat hartuta, alokairurako udal-jabetzako etxebizitzarik ba ote den adierazi behar da, goian azaldutakoari jarraiki. Udalerrri txikia izateagatik horrelako etxebizitza bakarra (parrokia-etxea, irakaslearen etxea, eta abar) badu ere, adierazi egin behar da.

4.1 galdera. Azalera erabilgarria: Azalera erabilgarria zera da, etxebizitzaren kanpoko hormen barruan hartutako metro karratuak.

